



# ALEA

arabako aldizkaria

2015-10-02 OSTIRALA  
32. ZENBAKIA  
URTEAN 50 EURO  
[WWW.ALEA.EUS](http://WWW.ALEA.EUS)



## IÑAKI RIKARTE

"Aditu ospea dauka Gasteizko publikoak"

### **Enpreetan ere, euskara lanean**

Elkarlanean hasi dira Arabako hainbat lantegi

### **Agurainen, sei mendeko azoka**

Pilota taldea omenduko dute herriko jaietan

# ZATOK EUSKALTELEN ZUNTZERA

**GUZTIA**

**0** € / HIL

**2016 ARTE**



**Kontratatu webgunean, saltokietan edo 1717an.**

Zenbat eta lehenago kontratatu, lehenago hasiko zara aurretzen.



Pakete osoa 0 €-an 2016 arte, eta, gero, hileko 45,9 €-an solik (BEZa barne)

euskaltel 

Sustopen hau 2015/10/31 baino lehen Zuntzean egiten diren alta berriei aplikatuko zaie. 12 hilabete irauteko konpromisoa. Ikus gainerako baldintzak [www.euskaltel.com](http://www.euskaltel.com) helbidean.

## HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu, harpidetu zaitez. 50 euroren truke, 44 ale jasoko dituzu urtean.

[www.alea.eus](http://www.alea.eus)



Alea

# 32. zk.

Azaleko argazkia:  
S. Fdz. de Aranguiz



- 4 Arabako enpresetan euskara sustatzeko planak.
- 8 Iñaki Rikarte: "Etxean bezala nago Principalean".
- 12 Iritzia: Oihan Txabarri, Iñaki Lazkano, Itsasegia.

### ARABAKO KUADRILLAK

- 14 Gasteiz: hiria erabiltzeko moduz hausnarketa.
- 16 Aiara: Espainiako bandera, eta beste zazpi Laudion.
- 17 Gorbeialdea: Izarrako herritarrak, 'Izarren Hautsak' lanean.
- 18 Lautada: Aguraingo pilotariak omenduko dituzte jaietan.
- 19 Añana: biluztu dute Sobron.
- 20 Mendialdea: Izki babesteko proiektua, arrakastatsu
- 21 Trebiñu: Argantzundarrak kuadrilla omenduko dute jaietan.
- 22 Arabako Errioxa: 'Irakurri eta gozatu' kanpaina martxan.

### HAMAIKA SALTSA

- 23 Bionekaraba azoka larunbatean, Gasteizko Foru plazan.
- 24 Aitzina jaialdia, "folka eta elkartasuna uztartzeko".
- 26 Gazteentzako zinema eskola, Ozetan.
- 27 Zozketak.
- 28 Postontzia.
- 29 Denbora-pasak.
- 30 Agenda.



**Argitaratzailea**  
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.

**Zuzendaria**  
Aritz Martínez de Luna Urzelai

**Erredakzioa**  
Anakoz Amenabar  
Itsaso Estarriena Elizondo  
Mirian Biteri

**Komertziala**  
Erlantz Anda

**Denbora pasak**  
Bagabiga

**Inprenta**  
Bidasoa inprimatzeko zentroa

**Banaketa**  
Bidera zerbitzuak

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.  
Eskola kalea, 10, 13. bulegoa,  
01001, Vitoria-Gasteiz, Araba  
Tel.: 945 71 60 09  
info@alea.eus

**Erredakzioa**  
erredakzioa@alea.eus

**Harpidetak**  
harpidetza@alea.eus

**Publizitatea**  
publizitatea@alea.eus  
695 63 28 62

**Lege Gordailua:** VI-32-2015  
**ISSN:** 2386-8961

**Tirada:** 2.100 ale

### Bultzatzaileak:



### Laguntzaileak:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA**  
**ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak  
diruz lagundua

Asteko kolaboratzaileak: Oihan Txabarri, Iñaki Lazkano, Iker Etxaniz eta Estibuz Ugarte.

ALEA ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.



'Arabán euskara lanean' topaketako parte-hartzaileak

BAI EUSKARARI ELKARTEA

# 'Fabricatik' lantegira

'Oficina'-tik bulegora; 'tienda'-tik saltokira: euskararen normalizaziora saltoa ematen ari dira Arabako gero eta enpresa gehiago, lantoki barruko euskara batzordeek bultzatuta. Horietako batzuk ezagutu ditu ALEAK. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

**J**antokian euskarazko bideoak ikusiz; dokumentazioa elebitan idatziz; langileei eskalategiko klaseak ordainduz; lantegian euskara eskolak eskainiz; barne-aldizkariak argitaratuz; euskarazko zerbitzua bermatuz: askotariko neurriak hartuz, sektore guztietako Arabako enpresatan ari dira euskara normalizatzeko urratsak ematen, hizkuntza-rentzat estrategikoa den esparru sozioekonomikoan.

Horren erakusgarri diren bi topaketa burutu berri dira Gasteizen. Lehenengoa, irailaren 17an, Mondragon Korporazioko Arabako euskara batzordeak antolatuta. Bertan, Electra Vitoria, Etorki, Urssa, Ikerlan eta Laboral Kutxako ordezkariak bildu ziren, baita Eusko Jaurlaritzako Hazi fundazioko kideak ere, Emun aholkularitzak dinamizatuta. Horietako batzuk pasa den asteko beste hitzordu esanguratsu batean ere parte hartu zuten: *Arabán euskara lanean* ekimenaren lehenengo saioan, hain zuzen. Lurraldeko zapi eragilek bultzatu dute egitasmoa: Arabako Foru Aldundiak, SEA enpre-

sarien elkarteak, Merkataritza Gamberak, Merkatarien federazioak, Electra Vitoriak, Oreka It Zerbitzu Informatikoak, lanbide heziketarako Laneki elkarteak eta Bai Euskarari ziurtagiriaren elkarteak. Horiez gain, beste hogeitaz gerturatu ziren topaketara, tartean okintza arloko Artepan, hezkuntza eremuko Egibide, El Corte Inglés merkatalgunea, LAB sindikatua, Vesa zinemak (Florida) eta Gasteizko Muebles Pozo altzari denda, aniztasunaren adierazgarri izan daitezkeen batzuk bakarrik aipatzearen.

## Euskararentzat, 'igogailuak'

1999an Arrasatetik Gasteizera lanera etorri zenean, lantokian "batere euskararik" entzuten ez zelako harritu zen Olatz Agorria. Gaur egun, Electra Vitoria igogailu enpresako Ikerkuntza, Garapena eta Berrikuntza (I+G+B) departamentuko teknikaria izateaz gain, lantegiko euskara planeko koordinatzailea da. Duela hamar urte kooperatiban euskara plana abiatzeko lanean hasi zirenean, langileei galdetzea izan zen lehenengo urratsa: beharginen %8a baino

ez ziren euskal hiztunak; aldiz, %80tik gora agertu ziren euskara plan bat jartzearen alde.

Babes hori ikusita, kooperatibako ordezkariak eta langilez osatutako euskara batzordea sortu zuten, eta baita zeregin zehatzetarako beste zenbait talde, beharren arabera aldatuz joan direnak. "Hasieran, ezer ez egotetik zerbait egitera, aldaketa nabarmena izan zen, erraz ikus zitekeena; jende guztia oso aktibo zegoen, baita lanetik kanpo ere; kantu-afarian elkartzen ginen, txangoak egiten genituen eta irteera kulturalak antolatzen genituen", gogoratzen du Olatz Agorriak. "Boom hori pixkat gaindituta", egoera egonkortuz doa gaur egun, eta hainbat dira Electra barruan hartu dituzten neurriak.

Ezagutza, erabilera, motibazioa eta erakundetzea dira edozein euskara planaren iparrorratza eta, ezagutzatik hasita, euskara ikasi nahi dutenei ekonomikoki laguntzen diete Electran, edo nahiago badute, lantegian bertan ematen dizkiete eskolak, astean lau-sei orduz. Era berean, formatu txikiko ikastaroak antolatzen dituzte, "ahalik eta lan-



I. ESTARRONA

**"Arabako enpresen artean oso errealitate ezberdinak daude: ondo dago elkarren berri izatea"**

**IRATXE ARTARAZ** HAZI FUNDAZIOA



I. ESTARRONA

**"Kooperatiba barruan sustatu dugu euskara; orain, zerbitzua euskaraz emateko lan egin behar dugu"**

**OLATZ AGORRIA** ELECTRA VITORIA



I. ESTARRONA

**"Gero eta bezero gehiagok eskatzen digute euskarazko arreta, eta emateko gai izan behar gara"**

**KARLOS LANGARIKA** LABORAL KUTXA

gile gehienara iristeko".

### 'Bazkaltegiak'

Jundizeko egoitzan, Mezularia izeneko lehiaketa antolatzen dute: langile guztiek gramatika arau simple baten berri jasotzen dute, eta horren inguruko galdera bat. Ondo erantzuten dutenen artean, zozketak egiten dituzte. Ez da ekimen deigarri bakarra: Bazkaltegiak antolatzen dituzte jantokian hilean behin, bokata jan bitartean euskarazko bideo bat ikusi eta, ogitartekoa amaituta, horren inguruan aritzeko. Zerrenda ez da horrekin amaitzen: motibazio tailerrak prestatzen dituzte, guraso izan berri diren langileei euskarazko sehaska-kantak bidaltzen dizkiete etxera, Euskararen nazioarteko eguna ospatzen dute abenduaren 3an, Korrikan parte hartzen dute eta Electrako euskara planaren EPA aldizkaria argitaratzen dute.

Euskara gehigarri hutsa izan beharrean erakundearen parte izan dadin ematen ari diren urratsen artean, badago nabarmentzekoa den bat: enpresaren jarraipen orokorra egiteko antolatu ohi dituzten barne hitzaldiak, gaztelaniaz egiteaz gain, euskaraz ere antolatzen dituzte. "Bost

## 30 enpresa baino gehiago

### Arabak Euskara Lanean saioa:

Arabako Foru Aldundia; Egibide; Bai Euskarari ziurtagiriaren elkarte; Humedal Informatik; Laneki elkarte; EGA Master; Muebles Pozo; Ikaulan Araba; Sartu Alava; Arkaute BHI; Harriarte; Artepan; Ekaia Eko-Gestion; Mondragon Lingua; El Corte Ingles; IES Zaroabe; JEZ; Hazi; AMPEA; LAB sindikatua; Bai&By; SEA enpresariaren elkarte; Arabako Merkataritza Ganbera; Electra Vitoria; Oreka It; Visesa.

### Mondragoneko topaketa:

Electra, Etorki, Urssa, Ikerlan, Laboral Kutxa eta Hazi, Emun aholkularitza dinamizatua.

-sei taldetik bat euskaraz eskaintzen da, eta hori euskara enpresa arloan barneratuz doanaren seinale da". Bestalde, paisaia linguistikoa elebitan jarri dute eta zabalkunde handiko dokumentuak euskarara itzuli dituzte; itzulpen zerbitzua abiatu dute ere, dokumentu formalak zein

edozein langilek tabloian jarri nahi dituen oharrak euskaratzeko.

Olatzen hitzetan, "poliki" doaz, "hala egin behar dugulako euskara modu naturalean normalizatuz joan ahal izateko". Kalera begira dute orain erronka nagusia: "Barrurantz lan egin izan dugu orain arte; bezeroei zerbitzua euskaraz eman ahal izateko lan egin behar dugu orain".

### Kutxazainak, konplize

Karlos Langarika arabarra duela 30 urte baino gehiago hasi zen Laboral Kutxan lanean, eta hamarkada hauetan zehar "Arabako gizarteak euskararekin daukan lotura nola aldatu den" bizi izan du bulegoan. "Lehen, gutxitan eskatzen ziguten euskarazko arreta; azken urteetan, gorakada handia nabaritu da, eta Kutxa bezala horri erantzuna eman behar diogu", dio.

Bulego bakoitzean gutxienez euskaldun bat egotea dute erronka. Zorionez, "gero eta errazago da, bazkide berriak gazteak direlako, euskaldunak oro har". Helburu hori bete arte, kutxazainak dituzte konplize: "Horiei esker dakigu zer zonaldetan erabiltzen den gehien euskara; Salburun eta Zabalganan, adibidez,

## Mondragonek antolatutako topaketa.

EMUN



askok erabiltzen dute kutzazaina hizkuntza horretan eta, beraz, auzo horietan arreta euskaraz eskaintzeko gai izan behar gara".

80ko hamarkadan abiatu zuen Laboral Kutxak euskara plana Arrasateko egoitzatik: mota horietako plangintzak dituzten tokietan ohikoa izaten den moduan, informazio eus-

karri guztiak elebitan dituzte –"edo bakarrik euskaraz, bezeroak hala eskatuz gero"–, euskara ikasi nahi dutenei ekonomikoki laguntzen die eta egoitzetan euskara eskolak eskaintzen dituzte. Bazkide euskaldunen sare bat dute, halaber: "Informazioa euskaraz jasotzeko eta bidaltzeko konpromisoa daukagu; Araban

200 bazkide gara guztira, eta 50 inguruk parte hartzen dugu sare horretan; oso erabilgarria da, horri esker bada-kigulako zer lankiderekin egin dezakegun euskaraz".

"Gipuzkoan duela 20 urte zeuden egoeran" ikusten du Karlos Langarikak orain Laboral Kutxa Araban. Euskaltzale moduan, "babestuta" sentitu da Kutxan, baina "beste lantoki batzuetan ez dela horrela izaten" ohartarazi du. Hortaz, enpresetako zuzendaritzek bultzatzearen garrantzia nabarmendu du.

### Betebeharrak haratago

Jakina da administrazioak hiritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko gutxieneko batzuk bete behar dituela derrigorrez. Minimo horiek ziurtatuta, urrutiago iritsi nahi du Eusko Jaurlaritzako Hazi fundazioak –garai bateko Itsasmendikoi, IKT eta Kalitatea fundazioa batu dituen–, Bikain ziurtagiria lortzea helburu. Bertako komunikazio taldeko langile eta euskara batzordeko kide Iratxe Artarazek halaxe azaldu du: "Langileen %55ak euskaraz jakin behar du, eta baldintza hori dagoeneko betetzen dugu, baina haratago joateko lan egiten ari gara".

Gaitasun-galdeketa bat egin ondoren, lanpostu bakoitzari zer euskara maila dagokion zehaztuko dute laster. Bitartean, euskara ikasi nahi dutenei ekonomikoki laguntzen die enpresak, eta beste hainbat ekimen antolatzen ditu euskara batzordeak, Iratxe Artarazek zerrendatu duenez: "Laguntzaile sarea dugu, gehiago dakigunok gutxiago dakitenei laguntzeko; bestetik, mintzapraktika saioak ditugu eta Korrikan parte hartzen dugu".

### "Gero eta enpresa gehiago"

Euskara normalizatzeko bidean, Gasteizen bildu berri diren foroan garrantzia azpimarratu du: "Errealitate oso ezberdinak daude lurraldeko enpresen artean; horrelako topaketatan, besteek egiten dutena ezagutu dezakezu, eta ekimen ona dira Arabak beti izan duen erdaldun ospari aurre egiteko". Bere hitzetan, "jendea oso motibatuta dago eta gauzak egiten ari dira". Pixkanaka, dio, enpresa gehiago hurbildu daitezke: "Badakizu: nire auzokoak zerbait egiten badu... ba nik ere!".

**URRIAK 25 OCTUBRE IGANDEA/DOMINGO**

**VITORIA GASTEIZ green capital**

**VIII CARRERA POR MONTAÑA DE VITORIA-GASTEIZKO VIII. MENDI LASTERKETA**

**CARRERA CORTA: 16 KM / CARRERA LARGA: 26 KM**

**www.carrerapormontañavitoria.es**

BABELA / PATROCINADOR ANTOLATZAILEA / ORGANIZA

**Vital** gizarte ekintza obra social

LAGUNTZAILEAK / COLABORAN

**k** kutxabank

**Coca-Cola**

**arteman** KOMUNIKAZIOA

**IntiSport**

**Diario**

**RUNNING GFTZ**

**CLUB DE MONTAÑA VITORIA**

**42K**

**radio vitoria**

**ASCENTUM** eventos culturales y deportivos

**Estadio Vital Fundazioa**

**IKUSI BIDEA: HIRINET.NET**

## GORKA BLANCO

**EMUNEKO AHOLKULARIA** Arabako hainbat enpresetako euskara planak kudeatzen ditu gaur egun Gorka Blanco barrundiarrak. Haren hitzetan, "euskara balio erantsi bat da". **I. ESTARRONA** GASTEIZ

# "Normalizazioa ez da hezkuntzan bukatzen"



**E**uskara eta lan mundua. Batzuei zientzia fikzioa irudituko zaie.

Seguru batzuei zientzia-fikzioa irudituko zaiela, baina prozesu logiko baten parte bat da: inbertsio handiak egiten ditugu gazteak eta haurrak euskalduntzeko, baina gero, lan mundura saltoa ematen dutenean, euskararen ateak itxi eta zuzenean erdal mundu batera sartzen dira. Euskalduntze prozesuan, lan mundua estrategikoa da.

**Zer eginkizun du lan munduak euskararen egoera normalizatzeke?**

Normalizazioa, niretzat behintzat, gaur egun Gasteizen gazteleraz egiten ditugun gauzak euskaraz ere egin ahal izatea da. Pentsa zenbat ordu pasatzen ditugun lanean eta zer garrantzia hartzen duen gure bizitzetan. Horregatik, euskara normalizatu behar da esparru horretan.

**Arabak ba al dira lantokian euskara normalizatzeke lanean ari diren enpresak?**

Ez dira guk nahi genukeen bezainbeste, baina gero eta gehiago dira gurdi honetara igo direnak.

**Zergatik erabakitzen dute enpresak urrats hori ematea?**

Enpresak gero eta gehiago dira kontziente, hondakinak, bezeroak edo hornitzaileak kudeatzen dituzten bezala, hizkuntzak ere kudeatu behar dituztela, zer esanik ez hizkuntza minorizatu bat daukagunean. Bestalde, euskarak balio erantsia ematen dio enpresari: enpresa moderno

baten irudia, hezkuntzak ere kudeatzen dituen enpresa batena. Zerbitzu enpresatan, adibidez, zerbitzu hori hizkuntza batean baino gehiagotan eskaintzeko gaitasuna dutenek balio erantsia dute.

**Zer neurri zehatz hartu ohi dituzte?**

Diagnostikoaren arabera izaten dira neurriak, lau esparrutan: ezagutza handitzea, erabilera areagotzea (dokumentazioan, hizkuntza paisaian eta abarretan), langileen motibazioa lantzea eta, guzti horri txapela jartzeko, erakundetzea edo instituzionalizatzea: hau da, hizkuntzen kudeaketa hori ez egitea enpresaren kudeaketatik aparte, baizik eta, enpresak plan estrategiko bat baldin badu, euskarak ere horretan lekua izatea.

**Non dituzte enpresak zailtasun gehien?**

Ez dut uste oztopo handirik egoten denik, baina bada gain-lantxo bat, esan dezagun. Ez da gauza bera dokumentu bat idazteaz hizkuntza batean edo bitan. Ahalegin handiagoa eskatzen du. Zailtasunak, edonola ere, lortzen diren etekinekin alderatu behar dira, eta balantza horretan etekinak irabazten du.

**Erresistentziak egoten dira? Langileen, bezeroen edo enpresaburuen aldetik...**

Oraindik gauza nahiko berria da enpresetan euskara plan bat abiatzea eta, beraz, planaren diseinua egiten denean, egon daitezke aurreiritziak, baina normalean ona izaten da harreara. Langileei inkesta bat pasatzen

zaie eta enpresa gehienetan langileen %60tik gora ados egoten dira euskara plana ezartzearekin. Egon daitezke euskararen kontrako jarrerak, gastu bat dela esaten dutenak... baina gutxiengo bat izaten dira. Plana martxa hartzen hasten denean, mamuak uxatzen dira.

**Zelan erakarri enpresak bide honetara?**

Inportanteena da bisualizatzea hortik etekin bat etorriko zaiela: ez bakarrik ekonomikoa –baita ere–; askotan, balio izaten du barne koehisioa lantzeko, adibidez. Bestalde, bezeroei zerbitzua edo produktua hizkuntza batean baino gehiagotan eman ahal izatetik ere badator etekina. Gero, gizartean integrazioa kontuan hartu behar da ere: enpresak ez daude bakarrik barrura begira, etekin ekonomikora begira; gizarte batean txertatuta daude, eta gizarteak ematen diona gizarteari itzultzeko modu bat da.

**Zeintzuk dira orain eronka nagusiak?**

Lehenengoa da kontzientzia hartzea: normalizazioa ez dela hezkuntzan bukatzen, aukera hori bermatu behar diegula datozen belaunaldiei. Horretarako trebatzen ari gara, horretarako batzuk ingeniariak edo goi ikasketak euskaraz egiten dituzte: gero, lan munduan euskaraz aritu ahal izateko. Hori, batetik. Eta, bestetik, lehen esandakoa: euskarak enpresari ematen dion balio erantsia ikustarazi behar dugu.

## IÑAKI RIKARTE

**AKTOREA ETA ZUZENDARIA** Zinean eta telebistan hainbat lan egin baditu ere, taula gainean egin du ibilbide oparoa Iñaki Rikartek; hark zuzendutako 'Solitudes' ikusi ahal izango dute Gasteizko jaialdian, azaroaren 27an. **ANAKOZ AMENABAR** GASTEIZ

# "Jarrera oso irekia izan behar da antzerkian, ingurukoari adi"

Jolas baten modura hasi zen. Ikastolan zegoela izan zuen lehendabiziko hartu-eman antzerkiarekin, Gasteizko TAE eszena-arte tailerlean antolatutako larunbat goizetako antzerki eskoletan. Mozorro arteko mundu hark harrapatu, etengabeko ikasketan murgildu, agertokietan lekua bilatu eta, geroztik, bide sendoa egin du Iñaki Rikartek (Gasteiz, 1981) aktore nahiz zuzendari modura. Antzerkizaleen artean arrastoa utzi duten hainbat lan ditu bizkarraren, *Soinujolearen semea* eta *Zazpi aldiz elur* tartean, eta zinean eta telebistan ere aritu da *Lasa eta Zabala* edota hasi berri den *Amaren etxea* telesailen. Donostia 2016 kultur egitasmoarekin batera izango du erronka nagusietako bat.

**Zer oroitzen dakarzikizu Principal antzoki honek?**

Umetakoak dira. Garai hartan zinea ematen zuten hemen eta *La historia interminable* eman zutela gogoratzen dut. Goian eserita nengoen eta hain flipatuta nengoen jaten ari nintzen galleta ere erori zitzaidala. Lilurata nengoen.

**Eta urte batzuk beranduago taula gainean zaude...**

Duela hiru urte etorri nintzen *Soinujolearen semea*-rekin, hemen egin genuen estreinaldia, euskaraz eta gaztelaniaz, eta oso funtzio bereziak izan ziren. Publiko asko izan genuen. Normalean euskaraz egiten diren

funtzioetan Gasteizko publikoa ezaguna da oso publiko aditua delako, ona. Nire lehenengo esperientzia izan zen hemen eta oso polita. *Zazpi aldiz elur*-en estreinaldia ere hemen egin genuen eta oso harrera ona izan zuen. Principal antzokiko jendearekin lan egitea, gainera, primerakoa da, oso erraz lan egiten da haiekin; etxean egoteaz aparte, etxean bezala sentitzen naiz.

**Eta 'La calma mágica' izan da azkena?**

Bai, Madriletik kanpo egiten genuen lehendabiziko funtzioa izan zen, han estreinatu eta gero, eta oso berezia izan zen.

Aitor Mazorekin egin genuen azkenetarikoa ere izan zen hura; sekulako zorrea izan zen harekin lan egitea, aktore moduan *munstro* bat zen eta asko ikasi nuen berarengandik. Esperientzia ederra izan zen.

**Nazioarteko Antzerki Jaialdia ate joka dator. Zer esanahi dauka zuretzat?**

Gurasoek ekartzen gintuzten txikitatik eta nolabait pauso hori ematea, ikusle izatetik bertan antzeztera igarotzea, oso polita izan da niretzat; Espainia mailan ere hemengo publiko oso ezaguna da, aditua delako,

antzerkizalea eta ohore bat da. Aurtan aukera gutxi izango dut lanen bat ikusteko, *La Calma mágica*-rekin biran egongo garelako, baina saiatuko naiz, sekulako programazioa dagoelako.

**Zure lan bat ere topatuko dugu jaialdian, 'Solitudes', zuzendari moduan oraingoan.**

Bai, estreinaldia martxoan egin genuen eta urrian jarraituko dugu birarekin, Frantzian, Ingalaterran... Lan berezia da, maskarekin doazelako aktoreak, ez dago testurik eta oso lan gestuala da; lan honek bultzatu

**"Fernando Bernuesekin batera 'Uda gau bateko ametsa' prestatzen nabil; sekulako erronka da"**

**"Gasteizko publikoa ezaguna da antzerki munduko lagunaren artean, oso publiko aditua delako"**

gaitu hitzik gabe kontatzeko modu berri bat bilatzera.

**'André y Dorine' lanaren jarraipena da?** Lan egiteko moduan bai, han ere ez dagoelako testurik eta maskarekin agertzen direlako.

**Lan arrakastatsua izan da...**

Justu gaur goizean esan digute Los Angelesen antolatzen dituzten antzerki sarietarako hautatu gaituztela. Bartzelonan ere egon berri gara, hiru astez, eta Kulunka moduko konpainia txiki batentzat Ramblasen antzoki batean antzezteko auke-





**Iñaki Rikarte,**  
Principal  
antzokian.

SAIOA FDZ. DE ARANGIZ

## Motzean

### **Carmen San Esteban.**

Oso pertsona berezia da niretzat. Berari esker uste dut nagoela ni antzerkian. Antzerki gosea piztu zidan.

### **Pikor taldea.**

Nire lehen esperientzia profesionala izan zen; han ikasi nuen zer zen bira bat, aktorearen benetako lana, furgoneta kargatzea... Eskolan zaudenean mundu imaginarioa da antzerkiarena eta han benetakoa ezagutu nuen. Oroitzapen oso onak ditut.

### **Mireia Gabilondo.**

Asko miresten dudan aktore eta zuzendaria.

### **Taula gaineko momentu bat.**

Hain justu Mireiarekin; berekin izan dudan harremana eszenatoki gainean gutxitan izan dut beste aktoreekin. Zortedun sentitzen naiz berarekin lan egiteagatik.

### **Obra bat.**

*Woyzeck*, Georg Büchnerrena antzerki eskolan irakurri nuen eta asko gustatu zitzaidan. Gero jakin nuen obra amaitu aurretik hil zela autorea, eta nolabait han hasi zela idazteko beste modu bat, ez zegoe-lako dena itxita.

### **Aktore izan nahi dutenezako liburu bat.**

*El actor y la diana*, Declan Nollenallena. Oso liburu balio-garria da aktoreontzat, eta gainera Gasteizera dator hark zuzendutako lan bat, *Measure for measure*, Errusiako konpainia batekin.

### **Gasteiz.**

Nire lagunak hemen daude, gurasoak ere bai, eta askotan etortzen naiz. Eta ni, noski, hemengo naiz kar kar, gasteiztar peto-petoa...



**'Solitudes' lana  
aurkeztuko du jaialdian,  
zuzendari modura.**

SAIOA FDZ DE ARANGIZ

ra izatea ez da batere erraza... oso pozik gaude.

**Zuzendari moduan 'Pulgarcito' ere taula gainean izan duzu, Gasteizko Paraiso taldearekin.**

Bai, joan den egunean egon ginen entsegua egiten, Madrilgo Compañía Nacional del Teatro Clasico-n izateko aukera izango dugulako. Abendutik aurrera izango gara han.

**Eta dena jolas baten moduan hasi zen...**

Nire arreba Marianistaseko antzerki talde batean zegoen, Carmen San Estebanekin, eta askotan gertatzen den bezala mutilak behar zituzten eta beste lagun batekin joan nintzen. Justu urte horietan erabaki behar nuen zer egin nire bizitzarekin eta antzerkia erabaki nuen. Lagun batek animatuta egin nuen proba, eta hemen jarraitzen dut.

**Madrilera ere egin zenuen jauzi.**

1999an joan nintzen, lau urtez ikasi eta beste hamar aktore moduan lanean.

Azken bolada honetan joan eta etorri nabil. Aukera ona izan dut han, bes-

---

**"Lagun batek animatuta egin nuen lehen antzerki proba, jolas modura, eta hemen jarraitzen dut"**

teak beste Centro Dramatico Nacionalean, lan baldintza onetan lan egin eta jende oso ona ezagutzeko.

**Zer bilatzen duzu antzerki lan batean, aktore, zuzendari nahiz ikusle modura?**

Egiazkoa izatea, benetazko gauzak lortzea. Sorkuntzari dagokionez, adibidez, gidoia oso inportantea da, baina badaude lan egiteko modu diferentek; Kulunkarekin, esaterako, hasten garenean ez dago gidoirik, eta abiapuntua beraz ezberdina da.

Azken batean, antzerkian inportantea da jarrera oso irekia izatea, ingurukoari adi egotea.

**Erronkarik baduzu aurretik?**

Datorren urtean Donostia 2016 egitasmoaren barruan egin behar den Shakespeareren *Uda gau bateko ametsa* zuzenduko dugu Fernando Bernuesek eta biok, eta jo ta ke ari gara prestatzen. Kristoren erronka izango da, bost astean Cristina Enea parkean izango dena, musikari, dantzari eta aktore ugariarekin.

**Telebista eta zinean ere lan egin duzu—Amaren Eskuak, Eutsi, Aitaren Etxea...—. Erritmo ezberdinak dira, ezta?**

Entseguak dira nire ustez ezberdintasun handiena. Antzerkian talde lan handia egiten da eta telebista eta zinean, aldiz, ez da ia entsegurik izaten, bakarrik lan egitera ohitu behar duzu.

---

**IKUSI BIDEOA: HIRINET.NET** 

# Lau hamarkada bete ditu antzerki jaialdiak

'Soplando velas' lanarekin hasiko da Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia, urriaren 3an, bertako konpainiek prestatutako ikuskizunarekin.

**G**asteizko Antzerki Jaialdiak 40. edizioa du aurtengoa eta, urtebetetzea behar moduan ospatzeko, bertako eta nazioarteko hamaika lan ikusteko aukera izango da urriaren 3tik azaroaren 27ra bitartean. Arabako eta Gasteizko arte eszenikoaren alorreko profesionalen ikuskizun proposamenarekin piztuko dituzte kandelak, urriaren 3an bertan. Paraiso, Panta Rhei, Pikor, Porpol eta Traspasos konpainien eskutik, *Soplando velas* lanarekin hasiko da festa.

Europako abangoardiako obra handi batekin jarraituko du jaialdiak hurrengo ostiralean, urriaren 9an: Samuel Becketten *Krapp's last tape* lanarekin, Peter Steinek zuzendari entzutetsuarekin. Eta haren ostean, zale guztientzako moduko aukera zabala. Euskarazko lanen artean, esate baterako, Tanttaka taldearen *Muxua* eta *Kreditua* lanak, Huts Teatroa taldearen *Etxeoak*

eta Gorakada taldearen *Moby Dick* izango dira. Eta klasikoekin ere gozatzeko aukera izango dute zaleek, abangoardiako zuzendarien eskutik:



Huts taldeak 'Etxeoak' lana aurkeztuko du azaroaren 4an. |ALEA



Mao perdóname. Juan Pérez Agirregoikoa

## ERAKUSKETAK

### IRRIBARREAREN SEGADA.

Artium Bilduma 2015-2016

2015.10.02 > 2016.09.04

### PUNK. ARTE GARAIKIDEAN UTZI DITUEN ARRASTOAK

2015.10.23 > 2016.01.31

### IKONOKRAZIA. KUBAKO ARGAZKIGINTZA GARAIKIDEA

Azken egunak > 2015.10.04

## JARDUERAK

### FAMILIENTZAKO LANTEGIAK

Artium txikia + Good morning Artium!  
Ilgande goizean haurrak eta beren lagun helduak elkarrekin hurbil dakizkioke arte garaikideari  
Urriaren 4tik aurrera

### PERFORMANCEA

TOPAKETA PRAXIS-EN

Alberto Lomas

2015.10.21 19:30

### XII. BERNAOLA JAIALDIA

2015.10.28 > 2015.11.01

### MUGAKO + MUGAKO KIDS

Musika Elektronikoa Garaikidearen Jaialdia

2015.10.9-10

Artium

Vitoria-Gasteiz  
www.artium.org

OIHAN TXABARRI

PUBLIZITATEAN LIZENTZIATUA



## Basko-espainola naiz

**E**z begiratu horrela, mesedez. Ez zaitetz urduri jarri. Sentitzen dut begietan eman badizu. Zuk Arabako ALEA irakurri nahi zenuen, eta orain El Correoren gehigarriarekin nahasi duzun beldur zara. Probokazio hutsa izan da, daitort, baina orain zure arreta daukadala, goazen (armairu) ateraldia azaltzera.

### "Basko-espainol kontzeptuak dualitatea besterik ez du adierazten"

hauteskunde kanpainan ez ezik, nire kuadrillan hautsak harrotu zituen. Lagun batek ezin ulertu, antza, Espainiatik atera nahi eta aldi berean espainiar nazionalitatea mantendu nahi lukeen katalanik egotea. Beldur naiz gai honen inguruan ere euskaldunok konplexuz josita ez ote gauden, gaiari naturaltasunez heltzeko. Deabruaren abokatuarena egitera behartu nuen nire burua: non dago kontraesana independentista izan eta basko-espainola izan nahiaren artean? Izan ere, marratxo horrek ohiko esanahia iraultzen du. Baskoespainol hitz tranpatia-ri (basko osagarri hutsa da espainol adierazlearentzat) subalternitatea dario, basko-espainol kontzeptu ordea dualitatea besterik ez du adierazten.

Nazionalitate bikoitza, arrazoi sentimental edo pragmatikoengatik, ederra da, nahiz eta karnet argazkietan bikoitza gastatu. Aiton-amonek inoiz erabili ez zuten pasaporte horri eutsi nahi nioke, zergatik ez. Arazoa zera da: ba al dauka inork gure nortasunei marratxoa jarri ahal izateko bideorrik?

Errebelazioa mende honetako pentsalari bikainetarikoa baten eskutik heldu zitzaidan, Raxoi presidenteari esker. 'Alsina afera' deitu dezakegun horrek ("Eeeh... eta europarra?") Kataluniako

IÑAKI LAZKANO

EUSKARA TEKNIKARIA



## Bihotz handiko herri txikia

**E**l meu país és tan petit que quan el sol se'n va a dormir mai no està prou segur d'haver-lo vist...". Horrela kantatu zion Lluís Llach handiak bere herri txikiari: "...nire herria hain txikia da ezen eguzkia lotara joaten denean inoiz ez da seguru ikusi izanaz...".

### "Ez gaitzaten itsutu %-ek; martxan den herria da katalana; behetik gora ari da"

baitzegoen hauteskunderen usainetara joanak. Jakinminak eta elkartasunak bultzatuta hurbildu ginen lur haietara eta esan beharra dago, neu behintzat, asebate bueltatu nintzela. Bizitakoak zer pentsa ugari eman zidan, garbi ikusten baita itxaropenez beteak daudela kale bazterrak. Asteburua eman genuen harat eta honat igande gaua iritsi arte. Ezagutu genituen emaitzak eta poztu ginen gehiengoa lortu baitzuen ilusioa irudikatzen zuen proiektuak.

Ez gaitzaten itsutu %-ek.

Martxan den herria da katalana, behetik gora ari dira eraikitzen burujabetza prozesua, eta soseguz doaz urrutira doazelako. Ez epaitegiek ez arrabots mediatikoe, eta are gutxiago beren konstituzioa ezagutzen ez duten politikoe, ez dute geraraziko prozesu hori.

"El meu país és tan petit, que sempre cap dintre del cor". Bihotz handietan sartzen diren herri txikiek etorkizuna irabazia dute.

Eta aurreko asteburuan harantza abiatu ginen lagun talde bat herri txiki hori hobeto ezagutzeko asmotan. Ez ginen bakarrak izan, ordea, hango eta hemengo lagun talde ugari

## BATZEN ITSASEGIAREN ZINTA



# #Katalunia

Arabako eta Euskal Herri osoko txiolariak Kataluniara begira jarri ziren pasa den irailaren 27an; zenbakiak interpretatzeko eztabaidaz harago, umoreak ere lekua izan zuen sareko hautestontzi zabalean. **I.ESTARRONA** @itsasoestarrona GASTEIZ



## Asier Azpilikueta @azpilikueta

Euskaldunok, Catalunya euskaraz KATALUNIA da. Eta Kataluniakoak, KATALANAK. Animo! Ez da hain zaila! #I27 #27S #hauteskat



## Martin Kitto @martin\_kitto

"PP bosgarren geratu da, eta Junts pel Sí atzetik hasi eta seigarren".  
Sinatuta: Mariano Rajoy  
#GauzakArgi.



## Jon Garmendia @txuriya

- Baina botoetan ez duzue irabazi.
- Botoak erreferendumean kontatzen dira, hauteskunde sisteman eserlekuak.
- Baina guk luzeagoa daukagu.



## Katixa Agirre @katixagirre

Follower ugari irabazi ditut Ciudadans gorroto dudala adieraziz. Hau ez bada populismoa...



## Imanol Magro @lmagreto

Half determination #kontzeptugisa



## Jon Ansa Mendizabal @ionansa

Duran ni en Lleida.

## GUTUNAK

### Biba nobioak!

KOLDO ALZOLA GASTEIZ

Pertsona gogaikarriak iruditut zaizkit beti eskirolak. Langileek dagozkien eskubideak aldarrikatze eskura duten tresna gutxietako bat baliatzea deliberatzen dutenean, greba egiten dutenean, alegia; beti izaten dira batzuk zilborrari begiratu nahiago eta lankideekin bat egiten ez dutenak. Eskirolak izkin egiten die, horrela, lanuztea egiteak lezarzkiokoen zehar kalteei. Hori bai, mobilizazioaren bidez eragindako presioari esker langilegoak onuraren bat konkistatzen duenean, eskirolak ere etekina ateratzen dio gainontzekoen borrokari. Hobe luke bizkarroiak, bere jokabidearekiko koherentziaz, borrokaren bidez eskuratutako

eskubideei uko egitea. Baina ez, berak ere gozatu egiten ditu garaipen horiek.

Lan arloan bezala, antzera gertatu izan da historian zehar gizateriaren beste zenbait lorpenekin. Borroka eta desobediendiaren emaitza izan dira beti gizarte konkista guztiak. 1886an Chicagon burututako langile-matxinadaren ondorioa da 8 orduko lanaldia; urte horretan bertan abolitu zen espainiar estatuan ordura arte legala zen esklabutza; bozkatzeko eskubidea 1933 arte ukatu zitzaien emakumei Espainian, eta borroka luze baten emaitza izan zen lorpen hori.

Duela ez asko ezohiko ezkontza baten lekuko izan gara Gasteizen, Javier Marotorena. Kronika arrosa axola

ez duenak ere jakingo guztiak luze eta zabal aritu baitira alkate ohiaren eta bere betiko senargaiaren arteko esposatzeaz. Ez dut esango ezkontzaren LGTB kolektiboaren aldarrikapen nagusietakoa denik, seguruenik izango dira lehenetsiko dituzten beste eskubide batzuk, baina bai homosexualen ezteiak normalizatu daitezkeen sekulako borroka izan dela atzean, eta ibilbide horretan Alderdi Popularra beti kontra izan dutela. Xelebrea da ikustea nola Marotoren ezkontzako gonbidatu gehienak 2005ean Espainiako Legebiltzarrean sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aurka helegitea jarri zuten berberak diren. Baina oraingo honetan haietako bat da esposatzeakoa.

Alkate zenaren jarrera bizkarroiarena da, eskirolarena bezalako, beste batzuen borrokaz konkistatutako eskubideak gozatu egiten ditu, duela hamar urte eskubide horien bertsuen aurka bozkatuak bazuen ere.

Ez naiz neu izango Marotoren ezkontza gaitzetsiko duenik, ezta horren kontura gustu txarreko txisterik aterako duenik ere, aitzitik, bejondeiela hari eta Joxemariri; baina jakin dezatela haiek eskubide hori baliatu dezaten beste batzuek borrokatu dutela haien aurretik.

(Gutun osoa: hirinet.net).

#### Parte hartzeko:

erredakzioa@alea.eus  
Gehienez, 1.500 karaktere. ALEAK eskubidea du gutunak laburtzeko eta HIRINET. NET-en elkarbanatzeko.



Julen Aguinagalde, Iñaki Zengotitabengoa eta Unai Saez de Ocariz, Zeledonon siluetarekin tailerrean. | ITSASO ESTARRONA

## J. AGUINAGALDE, I. ZENGOTITABENGOA ETA U. SAEZ DE OCARIZ

**#AHZEBERRIA PROIEKTUA** Aluminiozko papera erabilita, Gasteizko erdialdean hainbat bolumen artistiko jarriko dituzte urriaren 4tik 10era; instalazioekin, "hiria eurena" egiteko deia egin nahi diete gasteiztarrei. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

# "Hiriaren erabileraz gogoeta piztu nahi dugu Gasteizen"

**Z**ertarako erabitzen ditugu Gasteizko kaleak eta plazak? Beste zerbaitearako baliatu genitzakeen? Nola antolatu daitezke hiriko espazio publikoak? Galdera horiek eragin nahi dituzte gasteiztarren artean Julen Aguinagalde, Iñaki Zengotitabengoa eta Unai Saez de Ocariz arkitekto

gazteek, Udalaren Gazteria sailaren Haziak programaren bidez asteburu honetan abiatuko duten #AhZeBerrria! egitasmoarekin. **"Hiriko hirigintzaren deribak" kezkatzen zaituzte. Zergatik?** **Unai Saez de Ocariz:** Alde batetik, argi dago azken urteetan garatu diren auzoak ez direla eraginkorrrak izan hirigintzaren

aldetik. Asko zabaldu da Gasteiz eta lur gehiegi kontsumitu da. Erabakiak hartzeko moduak ere kezkatzen gaitu. **Parte hartze gutxi dagoelako?** **Unai:** Ez da kontuan izan. **Iñaki Zengotitabengoa:** Gure proiektuaren helburua, hala ere, ez da hainbeste parte-hartze proiektuak nolakoak izan behar-

du liratekeen zehaztea, baizik eta, batez ere, gasteiztarren artean erabile-rari buruzko gogoeta piztea. Hiria hiritarrona dela barneratu behar dugu. **Julen Aguinagalde:** Espazioei buruz pentsatu behar dugu: zergatik dira horrelakoak eta ez beste modu batekoak? **Eta zer egin dezakete hiritarrek**



Aluminio paperarekin bildutako hainbat kubo eta bolumen ezarriko dituzte igandetik aurrera. | I. ESTARRONA

### hiria eurena egiteko?

**Iñaki:** Erantzuna ez da erraza. Arkitekto moduan, fakultatean beti esan izan digute espazio publiko bakoitza zer erabilerarako diseinatu behar dugun, eta hor hipokresia puntu bat dago. Izan ere, hiriak diseinatzeako orduan, jendeak espazio zehatz horietan zer egingo duen pentsatuz diseinatzen ditugu (banku batzuk aurreikusten ditugu jendea esertzeko, plaza bat egiten dugu hiritarrak bertan egoteko...), baina gero inork ez du arkitektoak aurreikusitakoa egiten. Adibidez, 'Begirada' eskulturan [*El coño*], jatorriz funtzio bat zeukan, baina hiritarrok beste bat eman diogu. Horren inguruan hausnartzera animatu nahi ditugu gasteiztarrak. Gure

proiektuan, beraz, arkitektoekiko autokritika ere badago. Ezin da aurrez programatu kalean jendeak egingo duena. Agian pentsatzeko modua aldatu behar dugu, eta kalean nahi dugun edozer gauza egin dezakegula pentsatzen hasi.

### "Ezin da aurrez programatu jendeak kalean egingo duena"

**Alegia, kaleen erabilera ez dezatela hainbeste planoek erabaki?**

**Unai:** Alde batetik, hiria diseinatzerakoan arkitektoek erabilera zehatz bat egokitu diegu espazioei, eta, bestetik, ordenantza

ezberdinen bidez ere hiria- ren espazioen erabilera burokratizatu egin da. Horrenbestez, hiritarrok gure kaleak nola erabili ditzakegun ahaztu dugu. Duela zenbait urte arte arruntak ziren kalearen zenbait erabilera gaur egun ez dira ematen.

**Zeintzuk, adibidez?**

**Julen:** Adibidez, kalera norbera bere eserlekuarekin irtetzea eta bertan gertatzen ari dena begiratzen denbora ematea.

**Iñaki:** Umeen kasua ere adierazgarria da. Gure belaunaldia jaio aurretik, haurrek kaleko edozein tokitan jolasten zuten. Gaur egun, ez.

**Iruditzen zaizue oso sailkatuak daudela tokiak eta erabilerak?**

**Unai:** Elkartzeko tokia izatetik, komertziorako tokia

## 9

### KOKALEKU

Katedral Berria

Probintzia plaza.

Plaza Berria.

'Begirada' eskultura.

Zeledon eta arkupeak.

San Vicente aldapa.

Foru plaza.

Dato kalea.

Ibiltaria.

eta leku batetik bestera iristeko lekua izatera pasa da kalea. Bankuak gero eta gutxiago erabiltzen dira, adibidez, eta zuhaitzak dekoratu gisa baino ez dauzkagu.

**Zergatik aukeratu duzue aluminio papera zuen lanerako?**

**Julen:** Hainbat arrazoigatik erabili dugu material islatzailea. Batetik, gure nahia ez delako jendeak objektuari buruz gogoeta egitea, baizik eta bolumen horretan islatzen den espazioaren inguruan pentsaraztea. Bestetik, sukaldean guztiok izan ohi dugun materiala da aluminio papera eta, hortaz, edozeinek espazioa modu sortzailean erabili dezakeela adierazi nahi izan dugu.

INTERNETEN: [HIRINET.NET](http://HIRINET.NET)

**PARRAL TABERNA**  
San frantzisko xabier kantoia 4, GASTEIZ

**MENU BEGETARIANO ASTEAN ZEHAR**  
**KULTUR EMANALDIK ASTEARTERO GOSARIAK**  
**RAZIO BEGETARIANOAK ASTEBURUETAN**

# Beste zazpi bandera jarri dituzte espainiarrarekin batera Laudion

Ikurrina, Laudio eta Arabako banderez gain, Saharakoa, Nikaraguakoa, Eskoziakoa eta Kataluniakoa jarri dituzte ere

ERREDAKZIOA @aiaraldea

LAUDIO

Espainiako bandera udaletxeko balkoian ez jartzeagatik Laudioko alkatea zigortu du Administrazioarekiko auzietarako hirugarren gelako epaiak, pasa den astean komunikabideek zabaldu zuten bezala. Epai learen erabakia betetzeko, espainiar ikurra eskegi du balkoian Udalak, baina, hori ez ezik, beste hainbat bandera ere jarri ditu horrekin batera.

Tokiko erakundeak lau ikur ofizial jarri ditu: ikurrina, Arabakoa, Laudiokoa eta espainiarra. Horiez gain, Saharakoa eta Nikaraguakoa ere balkoian daude orain. Izan ere, bando baten bitartez udal gobernu taldeak azaldu du bertako herriekin dagoela senidetuta. Laudio, Arrankudiaga-Zollo bezala, Somotorekin senidetu zen Nikaraguan, eta Saharako kasuan, Bucraarekin.

Gainera, Eskoziako eta Kataluniako ikurrak ere eskegi dituzte udaletxean, "Euskal Herria bezala Europaren baitan beren toki propioa bilatzen ari diren herriak baitira". Plazaratutako alkatearen bandoan, espainiar ikurra jartzeko beharrarekin desadostasuna adierazi du Laudioko udal gobernu taldeak. Momentuz Espainiar Gobernuko Ordezkaritzak ez du erabakiari buruz adierazpenik egin.

## 1.500 euroko isuna

Luzea izan den prozesuaren ondorioz -Laudioko Udalak bi helegite aurkeztu



Zortzi ikur daude orain Laudioko udaletxeko balkoian. | AIARALDEA

ditu-, pasa den astean jakinarazi zion Gasteizko administrazioarekiko auzietarako hirugarren gelak Laudioko alkateari hilero 1.500 euroko isuna ordaindu beharko lukeela ikur espainiarra jarri ezean. Gaitasungabetzearekin ere mehatxatu zuen Daniel Sancho epaileak aginduari uko egingo balio. Beste audioiar bat dago prozesu judizial horren atzean, Carlos Urquijo gobernu ordezkaria, hain zuzen. Berez, espainiar ikurra jartzeko derrigortasunaz gain, ikur hori balkoian egotearen beharra salatu zuen Urquijok; izan ere, hasiera batean Laudioko udaletxean goiko partean jarri zuten.

Era berean, Carlos Urquijok modu "oso posi-

tiboan" baloratu zuen Laudioko alkatearen aurkako epaia hedabideetan.

## Elkartasuna

Larunbatean ospatu zuten herrian euskal jaia eta zenbait audioarrek alkatearekiko elkartasun kanpaina abiatu zuten, isuna ordaintzeko diru bilketa eginez. Natxo Urkixo Laudioko alkateak epaia inposizio "lotsagarri eta antidemokratikotzat" jo du, eta gogoratu du Laudioko gehiengoak ez duela bere egiten espainiar ikurra.

Gainera, balkoian ikurra jarri beharra erabaki politikoa dela ziurtatu du, legeak ez baitu zehazten non jarri behar den. Alkateak gaineratu du epaia gezurretan oinarrituta

dagoela: "Txostenak esaten du udaletxeko goiko partean jarritako ikurra ez dela plazatik ikusten eta balkoian, ordea, bai. Egia esan, goiko partetik gehiago ikusten da".

## Erabaki gatazkatsua

Laudion espainiar ikurra jartzeko erabakiak soka luzea ekarri du. 2010ean espainiar ikurra udaletxean jarri zenean mobilizazioa egin zuten herriko hainbat eragilek. Horren harira, hainbat eztabaida eman ziren aurreko legealdian Laudioko udal osoko bilkuretan, EAJko garai horretako bozeramaileak gaia politikoki erabiltzea leporatu baitzion EH Bilduko gobernu taldeari.





Irakurketa giroa sortzea bilatzen du egitasmo berriak. | ALEA

# 'Irakurketa kluba' martxan Urkabustaizko txikientzako

Sei hilabete eta hiru urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzenduta daude saioak

## MIRIAN BITERI

IZARRA

Urriaren *Irakurketa kluba* abian jartzeko asmoa dute Urkabustaizen. Sei hilabete eta hiru urte arteko

seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago hori; urriaren 7an, urriaren 21ean eta azaroaren 4an egingo diren saioetan haurrekin Urkabustaizko libu-

rutegira joatean datza proiektua.

Hiru arlo jorratuko dituzte saio horietan: haur eta gurasoen artean irakurketa giroa sortzea;

kalitatezko euskal bibliografia ezagutzea; eta, azkenik, liburuen komentarioak bultzatzea.

Esan bezala, Mari Gartzia gidatuko dituen emanaldiak Urkabustaizko liburutegian izango dira, 17:00etatik 18:30era. Interesatuek izen-emate orria bete eta ostirala, urriak 2, baino lehen aurkeztu behar dute liburutegian. Ikastaroa debalde eta euskaraz da.

## 'Bularretik Mintzora'

Badira dagoeneko hainbat urte udalerrin *Bularretik Mintzora* proiektua abian dagoela. Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko kanpaina da hori. Horren helburua da irakurketa ohiturak bultzatzea etxean, eskolan eta liburutegian. Antolatzaileen ustetan, gurasoak eta irakasleak dira haurrak eta liburuen arteko bitartekari egokienak. Hori kontuan izanda, eskolan horren gaineko egitaraua dute martxan; eta orain, gurasoei parte hartzeko gonbita egin nahi izan diete *Irakurketa klubaren* bidez.

## JAIK

# 'Izarren hautsak' emanaldiak emakumeaz jardungo du

Aurtengo edizioan herriko eragile ezberdinetan lan egiten duten 120 lagun baino gehiagok hartuko dute parte

## M.B.

IZARRA

Izarrako jaiak izango dira urriaren 2tik 5era bitartean, eta horren bueltan, askotariko ekintzak antolatuko dituzte. Tartean, *Izarren hautsak* izeneko ikuskizuna.

Triskari dantza taldeak bultzatuta, udalerriko gainerako kultura taldeei zabalik dago emanaldia; aurten, denera, 120 lagunetik gora igoko dira

larunbat iluntzean agertokira. Seigarren edizio honetan emakumearen egoeraren gaia jorratuko dute parte-hartzaileek, bakoitzak bere ikuspuntutik landuta.

## Partaideak

Askotariko lagunak izango dira han, hala nola, bertsolariak, txalapartariak, antzerki taldekoak, musika eskolako perkusio taldekoak, dantzariak lau

taldetan banatuta, txistulariak, trikitilariak eta herriko abesbatza gaztekoak. Kirolean aritzen den talde batek ere parte hartuko du: hain justu, aerobik praktikatzen duena.

Triskari taldeko kide Marisol Palacinek azaldu du asteak daramatzatela entseguekin; abuztuaren amaieran hasi ziren horiekin, eta asteon entsegu orokorra egin ostean, larunbatean, urriak 3, eskainiko dute emanaldia herriko pilotalekuan, 20:30ean.

## Bertso saioa

Baina Izarrako jaietan ez da *Izarren hautsak* emanaldia bakarrik izango.

Urteroko kale animazio, haurrentzako ikuskizun, edo mus, briska eta bolo txapelketei, bestelakoak ere gehitu behar zaizkio; esaterako, igande eguerdiko bertso saioa. Aurten, Arkaitz Estiballes, Oihane Perea eta Ruben Sanchez bertsolariek bisitatuko dute Izarra.

Musikak ere bere tokia izango du. Jaiaren hasieran, Aldats elektrotzarangak girotuko ditu kaleak; eta gauean, Astalapo, Honat TrikiCore eta disko jartzaileak izango dira. Larunbatean ere indartsu dator: Braga bakoitzean, The Gratix, Joselu Anaiak eta Tartantistak dj-ak.



Udaletxean omenaldia egingo diete, larunbat arratsaldean, Aguraingo Lezao taldeko pilotariei. | ALEA

# Aguraingo pilotariei egingo diete omenaldia, herriko jaiak hastearekin batera

620 urte beteko ditu, datorren asteartean, Agurainen ospatzen duten ganadu azokak

**ANAKOZ AMENABAR** @anamenabar

AGURAIN

Herriko pilotariak izango dira aurtengo jaietako protagonista Agurainen. Lezao pilota taldeari omenaldia egingo diete larunbatean, hilaren 3an, jaiei hasiera emango dien txupinazioarekin batera. "Pilota eskolek bizi duten egoera makalaren aurrean, bultzada txiki bat eman nahi izan diogu Lezaokoari eta orain arte egindako lan bikaina aitortu", nabarmendu du Txari Martin kultura zinegotziak.

Ibilbide luzea eta profesional ugari utzi ditu pilotak Agurainen eta eurek gogoan izango dituzte jaien lehendabiziko egunean. Omenaldia egingo diete udaletxean,

18:30ean, eta ohorezko agurra eskainiko diete txistulari eta dantzariak lagunduta. Ostean, 19:00etan, emango diete hasiera jaiei, txupinazioa, buruhandien kalejira eta musika bandarekin.

Berrikuntzen artean, gainera, aurten indarkeria matxista gaitzetsiko duen kanpaina abiatuko du Udalak. Eskuorri, pegatina eta bestelako materialak banatuko dituzte, Martinek azaldu moduan: "Puntu



1395. urtean ospatu zuten lehenengoz ganadu azoka. | RUIZ DE EGUIÑO

morea zabaltzeko ahalegina egingo dugu, oraindik orain indarkeria matxistaren kontrako irudi gisa identifikatzen ez duen jendea dagoelako". Genero indarkeria gaitzetsi eta gaiaren inguruko jarrerak "indartzeko" baliagarri izan daitekeela uste du.

## Azoka, asteartean

Danborrada, suzko zezena, bertsolariak, musika –Gariak 26, Joselu Anaiak, Gau Bela, Lisker, Astalapo eta beste hainbat–, haurrentzako jolasak, goitibehera-lasterketa, abarka jaurtiketa edota pilota txapelketa ez dira faltako asteartea bitartean ospatuko diren jaietan.

Bertako zein kanpoko askorentzat, ordea, asteartea izan ohi da jaietako egun nagusia: azoka eguna. Ganadu azoka eta nekazaritzako makineriaren erakusketa, artzain gazteen 24. lehiaketa, eskulangi-leak, gastronomia eta bertako produktuen erakusketa izango dira nagusi Euskal Herrian erreferente den azoka honetan. Txosna eta blusen egunarekin jarraituko dute jaiak hurrengo ostiralean.



Sobrongo haitzarteko errepede zaharra ikus daiteke egunotan. | GAUBEATIK ATARIA

# Sobrongo urpeko misterioak, agerian

Presa garbitzeko lanak direla eta, urperatutako hainbat azpiegitura ikus daitezke

**ESTITXU UGARTE** @estixuugarte

SOBRON

Ehunka lagun hurbiltzen ari da azken egunetan Sobrongo urtegia, ezohiko irudi ederrarekin gozatzera. Izan ere, urriaren 9ra arte Sobrongo presaren mantentze lanak eta garbiketa egiten ari da Iberdrola, eta urtegiaren ur maila jaitsi behar izan du. Urak atzera egin duenean agerian geratu dira urak estali zituen Burgos eta Arabako azpiegitura bitxiak eta milaka tona zebra-muskuilu, besteak beste.

Sobrongo urtegiak gordetzen dituen sekretuek jende andana erakarri dute Araba eta Burgos arteko muga egiten duen Sobron haitzartera. Ingurua berez ederra bada, are gehiago



Zebra muskuilu ugari agertu dira urtegian. | GAUBEATIK ATARIA

egun hauetan. Ebro ibaia- ren ibilgu naturala eta alde bietan sortzen diren hareazko hondartzak ikusi ahal dira eta aukera dago, halaber, Burgosko Tobalina eta Arabako Gaubea bailarak lotzen zituen lehengo errepidetik igaro eta garaiko tunela zeharkatzeko.

Era berean, 1905ean Iberduerok Larrazubiko zentral hidroelektrikoa hornitzeko Ebrorekiko paralelo eraiki zuen kanalaren hondakinak ikus daitezke; Espainiako estatuaren eraiki zuten lehenengo zentrala da. Eta Tobalinilla herrian zegoen udal aduanaren eraikina, Araba eta Burgos arteko mugarririkin batera.

Deigarriak dira, halaber, urtegiak estaltzen dituen hondakinetera eta harrietara itsatsita agertu diren milaka eta milaka tona zebra muskuilu.

## "Garoñaren mesedetan"

Egun hauetan konpontzen ari diren Sobrongo presa Garoñako zentral nuklearraren erreaktorea hozteko eraiki zuten 1960. urtean eta Lantaron udalerriko eta Tobalinako lurra urak hartu zituen; urtegi txikia da, 20 hektometro kubiko biltzeko gaitasuna du, eta erregulaziorako erabiltzen ez dutenez urtean zehar maila aldaketa txikiak izaten ditu.

Haatik, aurtengo otsailko euri jasen ondorioz urtegiako atek zabaldu behar izan zituzten eta Ebrok Sobrongo bainuetxearen zubi zuria bota zuen eta nekazal lurra hartu. Ordutik bost metro inguru jaitsi da ur maila. Urria hasieran amaituko dituzte lanak eta orduan presaren atek itxiko dituzte. Bitartean, haitzarrearen paisaiarekin gozatu nahi duenak ezohikoa den irudia ere topatuko du.

# Izkiko parke naturalean 350 okil ertain bikote inguru bizi dira gaur egun

Emaitza onak eman ditu amaitu berri den 'Life Pro-Izki' proiektuak; askotariko zaintza neurri jarri dira martxan azken lau urteotan

## MIRIAN BITERI

KORRES

Bukatutzat eman dute azken lau urteotan Izkiko parke naturalean martxan egon den *Life Pro-Izki* izeneko proiektua, eta egunotan horren bueltan gauzatu diren ekintzek emandako fruituak aurkeztu dituzte. Pozik daude Arabako Diputazioko teknikariak egitasmoak emandako emaitzekin.

Diputazioko Ingurumen Sailak, guztira, 25 zaintza, hedatze eta sare lan eraman ditu aurrera. Horien artean azpimarratzekoak dira ingurumen garrantzi handia duten espezieak babestera bideratutakoak, hala nola, okil ertaina, *bechstein* saguzarra eta *rhynchospora fusca* landarea. Horren harira, gaur egun, okil

zarrarentzako 125 babes-kutxa jarri direla jakinarazi du. Izkin bizi diren saguzarren jarraipena egitea bilatzen dute horiek, eta hortaz, ikertu ahal izatea. Fauna babesteko neurrien artean, azpimarratzekoa da parke naturalean egindako bost urmael. Abere eta baso anfibioentzako (igel jauzkaria eta baso saguzarrak) bateragarriak dira horiek.

Landarediari dagokionez, parke naturalean desagertzeko zorian dagoen *Rhynchospora fusca* izeneko landarea zaintzeko neurriak ere hartu izan dira. Hain justu ere, berrehun landaretik gora tokiz aldatu dituzte. Horren harira, Barredok azaldu du, gaur egun, Izkin daukela Iberiar penintsulako landare horien %95a.

## Hariztiak

Baso zaintzan European natura gunea babestuen artean erreferentzia den aldetik, hariztiak babesteko neurriak ere hartu izan dira. Honakoa esan du Barredok: "Azken lau urteotan, Hazi Fundazioarekin elkarlanean, Arabako Mendialdean dagoen harizti itzel hori luzaroan babestea helburu duten neurriak hartu ditugu, bai eta beste ekintza zehatzago batzuk egin ere, hango espezie adierazgarrienak zaintze aldera"

Ekintza guztiak aurrera atera ahal izateko 1,1 milioi euro jarri izan dira; Diputazioko eta Europako funtsek erdi bana finantzatu dute.



Izkiko parkean, ugariak dira okil ertainak. | ARABAKO DIPUTAZIOA



Bechstein saguzarra zulo batetik irteten. | A.D.



Galbaniturriko zohikaztegiko landareak. | A.D.

## "Bechstein saguzarrentzako 125 babes-kutxa jarri ditugu"

### AMAIA BARREDO

INGURUMEN ZUZENDARIA

ertainen presentzia oso ugaria dela nabarmendu du Ingurumen zuzendari Amaia Barredok: "Egun 350 bikote ditugu, hau da, Iberiar penintsulako guztien %25 eta 35 bitartean. Haien zaintza hobetze aldera, espezie horrentzako baso egitura egokiak sortu ditugu".

Horrez gain, lau urte hauetan, *Bechstein* sagu-



Dantzariak herriko plaza hartuko dute igande eguerdian. | JAVIER VEGAS FERNANDEZ

# Kalera irteteko ordua heldu da, Argantzungo jaien hasierarekin

Urriaren 2tik 5era begira, egitarau oparoa prestatu dute Udalak eta herriko eragile ezberdinek

## MIRIAN BITERI

### ARGANTZUN

Aspertzeko astirik ez da izango egunotan Argantzunen, Arroxioko Ama Birjinaren omenenezko jaiak ospatuko dituzte eta. Urtero moduan, ekintzaz lepo dator egitaraua.

Beti bezala, herriko neska eta blusen kuadrillek asko prestatu dituzte. Ostiralean, esaterako, plazarainoko kalejira egingo dute kuadrilla ezberdinek, eta Argantzungo taldeak izango du aurten suziria botatzeko ohorea. Larunbatean ere txokolatea banatuko du kuadrilla berak, plazan; eta gauean, Indar Biziak Arroxiaren zozketa egingo du aurten ere. Igande eguerdian, berriz, txorizo sagardotan banatuko du talde berdinak.

Kuadrillez gain, herriko beste eragile batzuek ere parte hartzen dute jaietan. Argantzungo ikastolak, adibidez, bingoa egingo du seigarrenez larunbat iluntzean; eta Argantzungo abesbatzakoek, berriz, emanaldia eskainiko dute igandeko mezan. Castillo tal-

deak ere urteroko futbol partidua jokatu du larunbatean.

## Astelehena, egun handia

Asteburuaren ondotik, astelehena ere ekintzaz josita dator: 11:00etan egin dute hitzordua errekarantz abiatzeko; 13:00etan, hil-

dakoen meza dute; eta 14:00etan, tren turistikoan ibilaldia egiteko aukera izango da, Biotz Gaztearen eskutik. Herri bazkariaren ostean, arratsaldean, puzgarriak eta haurrentzako animazioaz gain, 17:00etan Argantzungo kuadrillak antolatutako herri kirolak hasiko dira.

Amaitzean, zelaia denon artean jaso eta plazarantz abiatuko dira. 20:30ean, dantzaldia dago plazan; afaltzeko atsedena hartu ostean, musikak jarraituko du gauerdian. 01:00etan, mozerro lehiaketa dute, eta 02:30ean, jaien amaierako petardo-sorta bota eta Argantzungoeko igoera egingo dute.

## Asteburuko egitaraua

### OSTIRALA

**20:15** Desfilea plazara neska eta blusa kuadrillekin.

**20:30** Argantzonekoei harrera.

**20:45** Suziriaren jaurtiketa.

**01:00** Liskerrekin erromeria.

### LARUNBATA

**08:00** Argantzungo

kuadrillaren joan-etorria.

**12:30** Haurrentzako parkea.

**13:30** Dantza plazan.

**16:00** Futbol partidua.

**17:00** Alebin eta kadete mailako pilota partidua.

**18:00** Kiki, Koko eta Moko pailazoak.

**19:00** Txokolate jana.

**20:00** Nueva Era orkestrarekin dantzaldia.

**21:45** Ikastolaren VI. Bingoa.

**01:00** Nueva Erarekin dantza.

### IGANDEA

**08:00** Kuadrillaren joan-etorria.

**13:00** Herriko koroak gidatutako mesa eta Ama Birjinari lore eskaintza.

**14:00** Txorizo dastatzea.

**17:30** Mus txapelketa.

**18:00** Briska txapelketa.

**18:00** Umeentzako animazioa.

**19:00** Blusa eta nesken joan-etorria.

**19:00** Dantzaldia Krosskorekin.

**20:30** Umeen mozerro lehiaketa.

# Bi hilabetez luzatuko da aurten 'Irakurri eta gozatu'

Irakurritako liburu baten fitxa utzi ahalko da urrian eta azaroan eskualdeko liburutegietan

MIRIAN BITERI

OION

Ttiki Ttaka euskaldunon elkarteak prest du *Irakurri eta gozatu* kanpaina. Berrikuntzekin dator aurtengo edizioa, izan ere, hilabete bateko iraupena izatetik bi izatera pasa dela jakinarazi du eta elkarteko kide Andoni Landak; hain justu, urrian eta azaroan izango da.

Landak gogorarazi du erraza dela horretan parte hartzea: "Liburuak irakurri eta dagokion fitxa bete ostean, Arabako Errioxan liburutegia duten herrietan aurkeztu behar



Bi ume Oiongo liburutegian irakurtzen. | OIONENBAI.BLOGSPOT.COM

da fitxa aipatutako bi hilabeteetan; baldintza bakarra da euskarazko liburuak izatea". Urtero moduan,

Euskararen egunean, abenduak 3, liburu elektronikoa zozketatuko dute parte-hartzaile guztien artean.

Landak azpimarratu du oso harrera ona duela kanpainak; bereziki, gaztetxoaren artean: "Parte hartzen dutenak adin guztikoak baldin badira ere, asko eta asko 12 eta 16 urte bitartekoak dira; eta adin tarte horretakoek irabazi dituzte, hain zuzen, orain arte egindako bi zozketak". Irakurritako liburu motari dagokionez, denetarik dagoela adierazi badu ere, ohikoena eleberrien fitxak jasotzea dela gaineratu du.

## Idea Topagunetik

Hirugarrenez antolatu du Ttiki Ttakak kanpaina, Euskaltzaleen Topagunearen *Irakurri, gozatu eta oparitu* egitasmoa ideia hartuta. Irakurzaletasuna bultzatzea helburu duen kanpainak Arabako Errioxako herritarrak euskarazko liburuak irakurtzera animatu nahi ditu.

KIROLA



Erdi maratoiak eta patin lasterketak 21 kilometro inguru zituzten; herriguneak eta mahastiak zeharkatu zituzten. | ARABAKO ERRIOXAKO ERDI MARATOIA

## KIROLARIZ BETE ZEN ESQUALDEA

Arrakastatsua izan da aurten lehen aldiz egindako Arabako Errioxako erdi maratoia. Denera, hiru proba izan ziren igande goizean: erdi maratoia, herri lasterketa eta patin lasterketa; 500 kirolari inguruk parte hartu zuten. Alberto Albak

eta Emma Perezek irabazi zuten Samaniego, Leza, Eltziego, Navaridas eta Villabuena zeharkatu zituen erdi maratoia; herri lasterketan, Jesus Rendok eta Laura Garciak; eta patinetan, Garikoitz Lergak eta Idoia Martinez de Lafuentek.



Larunbatean ospatuko da Gasteizko Foru plazan Bionekaraba azoka ekologikoa; aurretik hainbat jarduera antolatu dituzte. | MENDIOLA ARABA

## Saskian, kimikorik ez

Ekoizpen ekologikoan diharduten Arabako nekazariak bere salgaiak eskainiko dituzte larunbatean Gasteizko Foru plazako Bionekaraba azokan, aste agroekologikoari txapela jartzeko. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

**P**asta freskoa egiteko tailerra; hiri baratzei probetxua ateratzeko saioa; elikadura ereduie buruzko solasaldia: askotariko proposamenekin abiatu zen asteazkenean Gasteizko aste agroekologikoa, Arabako nekazari-tza eta abeltzaintza ekologikoaren aldeko Bionekazaritza elkarteak antolatuta. Urteurren berezi bat ospatzeko prestatu dute aurtengo egitaraua: izan ere, bi hamarkada beteko baititu asteburuan Bionekaraba azokak.

Urriaren 2ra arte luzatuko da prestatutako programazioa. Zehazki, antzezlan, hazi trukea eta gazta tailerra eskainiko dituzte ostira-lean Zabalgana eskolan. Ondoren,

jarduera zerrendari txapela jartzeko, Bionekaraba azoka hartuko du Gasteizko Foru plazak larunbat goizean.

### 114 ekoizle

Arabako Foru Aldundiak azokaren aurkezpenean eskainitako datuen arabera, 114 nekazari eta abeltzain ekologiko daude Araban, azken datuei begiratuta -2014koak-. Horietatik, 90ek barazkiak ereiten zituzten eta 15ek animaliak dituzte bizi-modu. Horrek, guztira, 1.700 hektarea suposatzen ditu (1.700 futbol zelai baino gehiago), haietatik gehienak animalientzat, baina baita mahastietarako (400ha) eta zereal ekoizpenerako (190ha).

### Asteburuko hitzorduak

#### URRIAREN 2A, OSTIRALA

Zabalgana LHI eskolan:

**17:00** 'Zizare bidaia' antzelana, Marimba taldearekin.

**18:00** Hazi trukea.

**19:00** Gazta tailerra, Zaballako Berta A. nekazariarekin

#### URRIAREN 3A, LARUNBATA

**10:00-14:30** Bionekaraba azoka Foru enparantzan. Lurraldeko produktu ekologikoak salgai.



## TOÑI VILLEN

**AITZINA TALDEKO KIDEA** Asteburu honetan hasi eta urtarrilera arte, Aitzina Folk jaialdia ospatuko da Gasteizen; Oskorri taldea kartel buru, ataxia-telangiectasia duten gaixoen alde dirua bilduko dute antolatzaileek. **SAIOA FDZ. DE ARANGUIZ** GASTEIZ

# "Folk hutsunea betetzea eta gaixoeekin elkartasuna bilatzen ditu Aitzina jaialdiak"

**A**itzina Folk jaialdiak folk musika eta elkartasuna uztartzen dituen jaialdia dugu. Zer dela eta?

Bi arlo desberdin lotu ditugu. Batetik, elkartasuna, ataxia-telangiectasia gaixotasun arraroa duten umeak laguntzeko sortu zen jaialdia da-eta. Izan ere, Aitzina taldea kaltetuen gurasook, senitartekook zein lagunok 2010 urtean sortu genuen. Urte horretan estatu mailan gaixotasun hau pairatzen duten zortzi pertsona besterik ez zeuden, Euskadin kasu bakarra izanik, nire ilobarena, hain zuzen ere, eta gure helburua ataxia-telangiectasiaren gaixoen arazoak ezagutaraztea eta aldi berean gaixotasun horren alde dirua biltzea da. Bestetik, Folk jaialdia da, uste dugu-

lako musika mota honek Gasteizen bere tarte merezi duela eta gainera, Aitzina taldeko kideek folk musikarekin harreman estua dugulako. Izan ere, Patxi, nire neba eta kaltetuen aita, Parradust folk taldeko kidea da. AT-k ez du tratamendurik, eta horren inguruko ikerketa bultzatu nahi dugunez, hasieran plastikozko tapoien birziklatze solidario bati ekin genion eta jarraian Aitzina Folk jaialdia sortu genuen, bildutako diru-kopurua ataxia-telangiectasiaren ikerketa proiektua finantzatzeko.

**Zer motatako gaixotasuna da?**

AT-a gaixotasun "arraro" edo ezohikotzat hartzen da, ataxia sintoma nagusia izanik. Neuro-endokapenezko gaixotasun genetikoa da,

ibiltzeko eta hitz egiteko zailtasun progresiboa adierazten duena. Horrez gain, lehen mailako immunoeskasia (arnasbideetako infekzio ugari), linfoma, leuzemiaren eta neoplasiaren nolabaiteko aurretiko joera eta erradiazio ionizatzailearen aurrean ohikoa ez diren sentimenak eragiten ditu. Mota honetako patologia oso ezezaguna da gizarte zein medikuntza arloan, eta horrek ikerkuntza eta tratamendu egokiak izugarri oztopatzen ditu.

**Euskadin kasu bakarra da zure ilobarena, ezta?**

Bai, Euskadi mailan Jon da gaixotasun hau pairatzen duen pertsona bakarra. Izan ere, prebalentzia txiki-kiko gaixotasuna da: 200.000 laguneko gaixo bakarra dago. Aitzina



lan taldea martxan jarri genuenean, Espainia mailako AEFAT elkartearen zortzi familia besterik ez ginen.

### Gasteizen folk musika zabaltzeko ekimen inportantea bilakatu da Aitzina Folk...

Musika mota desberdinetako jaialdiak, zikloak, asteak, kontzertuak, *jam session* eta abar dauzkagu eta aniztasun ederraz gozaten dugu, baina folk-zaleek biolin, herriko musika tresna, herri musikaren

## "Herri musikaren erritmo, doinu eta ohiz kanpoko musika tresnen hutsunea igartzen dugu"

erritmo, doinu eta ohiz kanpoko musika tresnen hutsunea igartzen dugu. Hortaz, folk musika ekimenen inguruan zegoen hutsune horri aurre egiteko eta gure proiektu zehatzekiko Gasteizko gizartearen solidaritatea bultzatzeko ekintza kultural erakargarri bat eskaini nahi izan dugu.

## Hamar talde urritik urtarrilera

**Urriak 3** Gasteizko Alde Zaharrean kalejira.

**Urriak 10** Bitartean folk taldea Oihanederren 20:00etan; dohainik, gonbidapenarekin.

**Urriak 11** Tarna taldea (Leon) 19:30ean Hor Dago! tabernan; dohainik.

**Urriak 17** Oskorri, Mendizorrotxa polikiroldegian, 20:00etan.

**Urriak 18** Txiki-folk didaktikoa, Feten-feten taldearekin, 12:30ean.

**Urriak 18** Feten-feten taldearen 'Bailables' diskoa, 12.30ean.

**Urriak 18** Alos Quartet taldea eta Aukeran dantza konpainia, 19:30ean.

**Urtarrilak 2** Irish Session taldea.

**Urtarrilak 3** Calum & Heikki Quartet Principal antzokian.

**Urtarrilak 3** Xabi Aburrizaga Band, Principal antzokian.

## Aurten gainera, kartel potentea dakar jaialdiak, Oskorriren kontzertua barne...

Bai, Oskorri ekartzeak garrantzizko kartela eragin du. Oskorriren agurra eskainiko dugu, baina batez ere musika eta kulturaren arloko 45 urte hauetako lan eta ekarpenaren ospakizuna izango da, une paregabea Oskorriri eskerrak emateko. Bestalde, Oskorri ekartzeko aukera oso mugatua zen, pentsatzen genuen ez zela gauzatuko, baina pasa den Jaialdiaren edizioan Oskorriren biolin-joleak, Xabier Zeberioiok, parte hartu zuen, gogoratzen baduzue, Ana Alcaide eta Mikel Urdangarinekin Katedral Zaharrean. Xabier izan da gure ordezkaria taldearen aurrean, eta azkenean baietza eman ziguten.

### Sarrerak geratzen al dira oraindik?

Bai, oraindik bai, eta internet bidez eros daitezke. Bi mila sarrera baino gehiago saldu ditugu, bi aste falta dira kontzerturako, eta egun horretan bertan leihatilan ere posible izango da erostea, dena salduta ez badago, noski.

ELKARRIZKETA OSOA: [HIRINET.NET](http://HIRINET.NET)

**VITORIA GASTEIZ**  
green capital

# ILUNABARREANDANTZAN

BALFOLK-AREN ETA EUSKAL DANTZEN PLAZA

Europako eta Euskal Herriko dantzak eta musika zuzenean  
hilean behin ostiral arratsaldetan Oihanederren

JAUZIAK, SCOTTISH, FANDANGO, MAZURCA, ARIN-ARINA, BOURRÉE...

## ...JALGI HADI DANTZARA!

urriak 9 - 19:30 // azaroak 13 - 20:00 // abenduak 11 - 20:00

radio vitoria  
Diario

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA  
ESTRIZEN ARAU ONDOKIA

oihanedereuskararenetxea.eus



Kepa Errasti Gorroño zuzendari eta aktoreak gidatuko du Gazte Zinemaldia izeneko eskola Ozetan; irudian, makillaje saio batean. | GOIENA

# Argiak, kamera... gazteak!

Araba osoko gazteentzat zinema eskola antolatu du Ozetako Garaion elkarteak, 'Gazte zinemaldia' izenburupean; parte-hartzaileek bost film labur sortuko dituzte, Kepa Errasti Gorroño zuzendari eta aktorearen gidaritzapean. **ITSASO ESTARRONA** OZETA

**E**uskarazko *Loreak* filma Espainiako estatua Oscar sarietan ordezkatzeko hautagai izendatu berri dutenean, zinemagintzaren zirrikutuak lehen eskutik probatzeko aukera izango dute Araba osoko gazteek: Ozetako Garaion NaturArtea elkarteak *Gazte Zinemaldia*; *Hollywood berria* Araban zinema eskola antolatu du 16 urtetik gorako arabarrentzat, baita interes handia duten adin horretatik beherakoentzat ere.

Kepa Errasti Gorroño zinema zuzendari eta aktore aretxabaletarrak gidatuta, bost film labur sortuko dituzte parte-hartzaileek euskaraz, eurek aukeratutako gaietatik abiatuta. Bi asteburutan egingo dituzte saioak, Barrundiako Ozeta herrian. Lehenengo hitzorduan (urriaren 16tik 18ra), gidoigintza eta aurre-ekoizpen lanak landuko dituzte. Bigarren asteburuan (azaroaren 6tik 8ra), aldiz, grabaketa

eta aurre-edizio lanetan arituko dira sortzaile gazteak.

## Izen-ematea, zabalik

Sortuko diren lanekin estreinaldia antolatuko dute Garaion elkartearen egoitzan, eta ondoren Arabako herri

## Langabetuentzat ortugintza tailerra

Zinema eskolaz gain, beste ikastaro bat antolatu du Barrundiako Garaion elkarteak: langabetuentzako ortugintza ekologikoa. Ozeta herriko Otaza auzoan izango dira saioak, urriaren 19tik azaroaren 20ra bitartean. Guztira 150 orduko iraupena izango du eta doakoa da izen-ematea.

desberdinetan erakutsiko dituzte lanak, egileek aukeratutako tokietan. Guztira, 40 gazterentzat lekua dago Gazte Zinemaldian. Urriaren 9ra arte eman daiteke izena 75 eurogatik, bi asteburuko egonaldia, ikastaroa eta jan eta lo zerbitzua barne. Xehetasun guztiak Garaion elkartearen webgunean daude ([www.garaion.eus](http://www.garaion.eus)).

Ekimenarekin, "zinema, gazteak, euskara eta Araba" uztartu nahi izan dituzte antolatzaileek, "gure gazteek esateko dutena adierazteko, hori baita sormen lanen balioa, esaten dugun hori kanporatzeko bide artistiko bat erabiltzea". Garaion elkartearen hitzetan, "gaur egun bere eskura dituzten tresna txikiekin bideolip eta muntaia desberdinak egiteko guztiz gai dira gazteak"; hori dela eta, parte hartzaia animatu dituzte, "etorkizunean zinemagile eta zale berriak izan ditzagun".

**Azken zozketako irabazlea:**

**Hala Bedi tabernan afaria:**  
Ilune Basterra Txurruka (Gasteiz).



# ZOZKETAK

Harpidedunentzat eskaintzak



## Zainzuri sorta

Nafarroa hegoaldean nekazaritza eta euskara bultzatu nahi dituen Errigora ekimenaren eskutik, ALEAK bost lataz osatutako **zainzuri sorta** bat zozketatuko du. Eman izena **urriaren 12** baino lehen. Hilaren 16an jakinaraziko dugu irabazlea.



## Antzerkirako bi sarrera

ALEAK **bi pertsonentzako** sarrera bikoitza zozketatuko du, Gasteizko Baratza aretoan euskarazko *Salto* antzezlanak ikusteko, azaroaren 8an (igandea), 19:00etan. Eman izena **urriaren 12a** baino lehen; 16an jakinaraziko dugu irabazlea.

Zehaztu zer zozketatan parte hartu nahi duzun:



695 63 28 62



erredakzioa@alea.eus

Jaso ezazu  
zure etxean!



# ALEA

arabako aldizkaria

50€  
urtean



[www.alea.eus](http://www.alea.eus)



**GASTEIZ**

**Eneko Gorospe Hierro**

"Zorionak Eneko! Mendizale honek jada bi urte bete ditu, ondo-ondo pasa ta mila milioi muxu Asier eta Itziarren partez".



**GASTEIZ**

**Izaskun Lopez de Bikuña**

"Zorionak lokilla! Urtebete gehiago betetzeagatik ere, zu beti gazte. Egun polita igaro eta besarkada handi bat. Zure kuadrilla".



**GASTEIZ-BILBO**

**Unai Ruiz de Arkaute**

"Berandu bada ere, ez pentsa familiakoak zutaz ahaztu garenik! Zorionak eta besarkada handi-handi bat familiako quztien partez".



**ALBOLOTEKO ESPETXEA (ANDALUZIA)**

**Diego Ugarte**

"Zorionak Diego! Zu Granadan eta gu Euskal Herrian, hain urrun eta hain hurbil. Musuak eta mimitoak familiaren partez, eta jarraitu beti bezain alaitsu eta jator. Maite zaitugu polit hori!".



**GASTEIZ**

**Oihan Luzuriaga Rejado**

"Zorionak maitia! Izoziak jateko garaia bukatu da, baina uda iritsi bitartean primera pasa urtea! Asko maite zaitugu! Musu bat familiaren partez".


**EUSKARAZKO  
KOMUNIKABIDE BATEAN  
KOLABORATZEA  
GUSTATUKO LITZAIZUKE?**

**INFO+**  
erredakzioa@hirinet.net



**ALEA** hirinet

HITZ GEZIDUNA

	*	▼	Barru	▼	Pl., egunaren atala	▼
	Hegan		Su bizi		Alemaniko enperadorea	
	▶		▼		▼	
		▶				
Kilima	▼	Ileetako intsektua	▶			
Gipuzkoako lurmuturra		Teilapeko ganbara				
▶				Euskañi sindikatua	▶	
				Barazki mota		
Fereka	▶					Presio unitate
Gineako						
▶					Rubidioaren ikurra	▶
					Europar Batasuna	▼
Kendu adiztaren oina	▶			Bortzirietako herria	▶	
Esteribarko kontzejua				Sufrearen ikurra		
▶			▼			

\* Aiarako dorretxea

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

R	V	B	I	S	V	S	V	S
V	R	B	E	R	K	E	N	K
B	R	B	A	R	E	N	G	I
K	L	V	Z	T	I	V	H	I
H	I	G	E	R	E	S	K	
I	A	R	I	Z	O	R	I	A
A	U	G	A	R	A	K	A	
H	E	G	A	K	A			
G	B	N						

SUDOKUA

8	7	4	2	3	5	6	1	9
6	1	3	9	8	7	2	4	5
9	2	5	6	4	1	3	8	7
5	4	7	1	9	6	8	2	3
2	8	1	3	5	4	7	9	6
3	6	9	7	2	8	1	5	4
4	3	2	8	6	9	5	7	1
7	9	6	5	1	2	4	3	8
1	5	8	4	7	3	9	6	2

GOITIBEHERA

O	L	I	S	V	B		
V	O	B	S	I	L		
V	O	L	I	B	L		
		B	I	L			
		I	L	A			
		L	L	A			
		L	L	A			
		L	A	Z	T	I	
		L	A	V	A	L	Z
		L	A	V	A	L	Z

SUDOKUA

		8		7	3	9	6	
	9		5					8
		2					7	
	6		7			1	5	
				5				
	4	7			6		2	
	2					3		
6					7		4	
	7	4	2	3		6		

**Nola jokatu?** 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA

1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								

**Nola jokatu?** Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.  
 1. Iruraitz-Gaunako kontzejua. 2. Gaiztoa, doilorra.  
 3. Ospe, izen on. 4. Sukaldeko tresna, burrunztali.  
 5. Izen arabiarrak. 6. Xerka. 7. Ilea. 8. Portugalgo hiriburua. 9. Gizon izena.



ALEA

**PAM (Putoamoakmatematiketan)**

Gasteiz. Asteartea 6, 20:30ean, Parral tabernan.

URRIAK

2

URRIAK

8

**EUSKARAREN  
AGENDA**

MUSIKA

**Aldats, Egurra Ta Kitto, Astalapo eta Honat Izarra.** Ostirala 2, 19:00etan, plazan.

**Garilak 26 Agurain.** Ostirala 2, 23:00etan, Donibane plazan.

**Trago Bakoitzean, The Gratix eta Joselu Anaiak Izarra.** Larunbata 3, 19:00etan, plazan.

**Gaubela Agurain.** Igandea 4, 20:30ean eta 23:30ean, Andra Mari plazan.

**Kupela Aramaio.** Igandea 4, 13:00etan, Untzilla auzoko jaietan.

**'Erractus', Jule Goikoetxea, Kattalin Miner eta Danele Sarriurgaterekin**

Gasteiz. Osteguna 8, 20:00etan, Ignacio Aldekoa kultur etxean. Irakurle Klubaren programa aurkeztuko dute.



JUAN CARLOS RUIZ

ANTZERKIA

**Irrien Lagunekin kanta eta dantza Agurain.** Igandea 4, 14.30ean, txosnagunean.

**'Baserriko porrusalda' Bapatean taldearekin Gasteiz.** Igandea 4, 19:00etan, Ariznabarrako gizarte etxean. 12 urtetik gorakoentzat.

DANTZA

**'Izarren hautsa' dantza ikuskizuna Izarra.** Larunbata 3, 20:30ean, frontoian.

IKUS-ENTZUN

**'The Aviator' pelikula Laudio.** Ostirala 2, 19:00etan, Basalarrinan. Euskaraz.

BERTSOLARITZA

**Bertso afaria Aramaio.** Ostirala 2, 21:00etan, Untzilla auzoko jaietan. Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariekin.

**Bertso saioa Amurrio.** Larunbata 3, 15:00etan, Baranbion. Sustrai Colina eta Jon Maiarekin.



## Aguraingo ganadu azoka

**Agurain.** Asteartea 6, egun guztian zehar. Behi, txerri, ahuntz eta ardién

azoka, nekazaritzako makineria erakusketa, artzain gazten lehiaketa, gastronomia produktuen salmenta, pilota

partidak, musika emanaldiak eta beste hainbat ekitaldi izango dira Aguraingo jaietako egun nagusian.

## Plaza librea

**Izarra.** Igandea 4, 13:30ean, plazan. Arkaitz Estiballes, Oihane Perea eta Ruben Sanchez bertsoariekin.

### HITZALDIAK

## 'Feminist Agenda' euskal literaturan

**Gasteiz.** Urriaren 7an, azaroaren 4an eta abenduaren 2an, 19:00etatik 21:00etara, Oihaneder Euskararen Etxean. Gema Lasarte literatura adituarekin.

### BESTELAKOAK

## 'Sortegia' ikastaro sorta

**Gasteiz.** Urriaren 7ra arte eman daiteke izena, Oihaneder Euskararen Etxean. Ahozko kontalaritza (Itziar Rekalde), soinu ekipo muntaketa eta erabilera (Mikel Egiluz), komiki sorkuntza (Ainara Aspiazua) eta moda (Maddalen Agirre) jorratuko dute ikastarotetan. 16 urtetik gorako lagunei zuzendutakoak eta doakoak.

## BESTE HITZORDU BATZUK

### MUSIKA

## Vicente Garcia abesbatza

**Lanteno.** Larunbata 3, 18:30ean, arte eskolan.

## Santa Lucia abesbatza

**Dulantzi.** Larunbata 3, 19:30ean, kultur etxean.

## Aitzina Folk jaialdia

**Gasteiz.** Larunbata 3, 20:00etan, alde zaharrean.

## Henry Herbert eta The Living Deads

**Gasteiz.** Larunbata 3, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

### ANTZERKIA

## 'Soplando velas' Gasteizko hainbat talderekin

**Gasteiz.** Larunbata 3,

20:30ean, Principal antzokian.

### HITZALDIA

## 'Raíces en el asfalto: pasado, presente y futuro de la agricultura urbana'

**Gasteiz.** Osteguna 8, 19:00etan, Oihanederren. Jose Luis Fernandez eta Nerea Moran adituarekin.

### ERAKUSKETAK

## 'Marrazki mikologikoak'

**Gasteiz.** Urriaren 18ra arte, Ataria naturaren interpretazio gunean.

## 'Ikonokrazia', Kubako argazkigintza garaikidea

**Gasteiz.** Urriaren 4ra arte, Artiumen.

## 'Biodiskografiak', Alaitz Alberdiren ilustrazioak

**Gasteiz.** Azaroaren 21era arte izango da, Zuloa gunean. Iban Zaldúa idazlearen

*Biodiskografiak* ipuin liburuaren gaztelaniazko edizioa ilustratzeko lana egin du Alaitz Alberdik.

### BESTELAKOAK

## Marrualdiaren gaua

**Gasteiz.** Ostirala 2, 20:00etan, Salburuko Ataria gunetik abiatuta. Aurretik izena eman behar da. Familientzako jarduerak.

## Hegaztien Mundu Eguna

**Gasteiz.** Igandea 4, 11:00etatik 14:00etara, Ataria naturaren interpretazio eguna.

## Freestyle Motocross

**Gasteiz.** Larunbata 3, 20:00etan, Iradier Arenan.

## Tokiko ekoizleen azoka

**Gaubea.** Igandea 4, goizean zehar, frontoian.

## Haurrentzako suzko zezena

**Agurain.** Ostirala 3, 22:00etan, Euskal Herria plazan.



# abere azoka AGURAINen

Urriak 6, Asteartea

620. urteurrena

11:00 etan.-

2015eko ABERE AZOKA. (620. urtea)

“Euskal Herriko Mendiko Zaldia” arrazako Euskadiko  
zaldi-aziendaren VIII. Lehiaketa morfologikoa.

Arabako XXIX. Artzain-Gazta lehiaketa.

Behi eta ardi-aziendaren erakustaldia.

Nekazal makineriaren erakustaldia.

Euskal Herriko artisautza, gastronomia eta produktuen  
erakustaldia eta salmenta.